


Kiroljokoak ostalaritza zerbitzua estreinatu du Eibarko Apustu-etxean

Eibarko Kiroljokoa Apustu-etxeak bezeroentzako ostalaritza zerbitzu berria eskaintzen du joan zen asteburuaz geroztik. Lokaleko barraren estreinaldia ostiral arratsaldean egin zen eta inaugurazio ekitaldira jende mordoak gerturatu zen, Kiroljokoak herrian babesten dituen zenbait taldeetako ordezkariak barne (J. D. Arrate eta Eibar Eskuderia, besteak beste).



laztik Gernika eta Iruneko Apustu-etxeetako erabiltzaileek ostalaritza zerbitzuaz gozatzen ari dira eta orain Eibarkoek ere izango dute aukera

hori. Horrela aipatu zuen lokal eibartarreko arduraduna den Gorka Amuategik inaugurazio ekitaldian: "Gernika eta Iruneko bezeroak oso pozik daude zerbitzu honekin, beraz, hemendik aurrera, zuek ere zuzeneko partiduak ikusi eta apustu egitera etortzen zaretenean erosoago egon zaitezten espero dugu".

Kiroljokoak dagoeneko apustuak eskaintzen dituzten 14 lokal dauzka Euskal Autonomi Erkidegoan: 8 Apustu-etxe edo lokal bereziak (Eibar, Irun eta Tolosa Gipuzkoan; Durango, Gernika, Santurtzi eta Barakaldo Bizkaian; eta Gasteizen) eta joko aretoetan kokatutako 6 Txoko (1 Donostian, 4 Bilbon eta 1 Gasteizen). Gainera, Kiroljokoak 500 apustu makina inguru ditu tabernetan.

Informazio gehiago:

Maribel San José

msanjose@kiroljokoa.com

TEL: 688 881 709